



## ORDEZKAPENETARAKO IZANGAIAK

### ZERRENDEN KUDEAKETA

13.- Zer ordenari jarraitzen zaio ordezkapenak eskaintzeko?

Ordezkapen bat egiteko beharra dagoenean, dagokion espezialitatean dauden izangaien zerrendara joko da, eta zerrendan dagoen lehenari eskainiko zaio ordezkapena, baldintzak betetzen baldin baditu, eta ordezkapena egiteko moduan badago, egindako aukeren arabera.

14.- Ordezkapenak derrigor edo nahitaez onartu behar dira?

Zerrendatik kanpo geratu nahi ez badu, izangaia behartuta dago ordezkapen-eskaintzak onartzera, non eta uko egiteko arrazoia ordezkapenatarako izangaien arauaren 7. artikuluan agertzen diren onartutako arrazoen barruan ez dagoen.

15.- Zeintzuk dira ordezkapenari uko egiteko arrazoi justifikatuak?

Uko egiteko arrazoi justifikatuek aukera ematen dute izangaien zerrendan jarraitzeko, uko egiteko arrazoia amaitu edo desagertu ondoren.

16.- Zer egin behar da uko egiteko arrazoia amaitu edo desagertzen denean?

Hori gertatu bezain pronto, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari jakinarazi behar zaio uko egiteko arrazoia ekarri zuen gertakaria bukatu dela, baita amaiera hori egiaztatu ere.

17.- Zer egin behar da ordezkapena amaitzean?

Era berean, izangaiak ordezkapena amaitzen duenean, ahalik eta lasterren jakinarazi behar dio dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari. Jakinarazpena idatziz egingo da beti, eta, horretaz gain, beste bide batzuk ere erabil daitezke.

18.- Noiz utzi daiteke izangaia zerrendatik kanpo?

Zerrendatik erabat eta behin betiko baztertzeko arrazoiak izango dira hurrengoak:

\* Zazpigarren artikuluan adierazitako arrazoiez bestelakoengatik egindako ukoa.

\* Izangaia, berak eskatutako ezaugarriak, modalitateak, lurraldea, etab. dituen ordezkapenera deitua izanik, bertara ez agertzea eta uko egiteko bidezko arrazoirik ez aurkeztea.

\* Izangaiak bere ohiko zereginak betetzeko ageriko gaitasunik eza erakustea.

\* Diziplina-espedientearen ondoriozko zehapena jaso izana, hutsegite larri edo oso larriren batengatik.

Arrazoirik gabeko uko egitea gertatuz gero, lurralde-ordezkaritzak honako hauek bidaliko dizkio interesatuari: ordezkapen-eskaintzaren sendespen edo konfirmazioa, baita uko egitearen eta zerrendatik bazter utzi izanarena ere.

19.- Zer da semea edo alaba zaintzeko aldi baterako etena?

Amak edo aitak duten aukera bat da, zeinaren bitartez ordezkapen-eskaintza bati uko egin baitiezaiokete, zerrendatik kanpo geratu gabe, semea/alaba zaindu ahal izateko. Behin bakarrik eskatu ahal izango da, amatasun-bajaren aldia bukatzen denean, eta semeak/alabak hiru urte bete arte iraun dezake, gehienez. Dena den, haurrak hiru urte bete baino lehen ere itzul daiteke zerrendara aita edo ama.

Etenaldia amaituta, izangaiak zerrendara itzultzea eskatu beharko du. Itzultzea ez eskatzeak, zerrendetatik kanpo gelditzea ekarriko du.

20.- Zer gertatzen da ordezkapen jakin bat egiteko gaitasun nahikorik ez badago?

Izangaiak uste badu ez dagoela gaituta ezaugarri bereziak dituzten lanpostu jakin batzuk betetzeko, uko egitea dauka, zerrendetatik kanpo geratu gabe. Halakoetan, ordezkapenetarako izangaien arauaren 10. artikuluan ezarritako protokoloari jarraituko zaio. Uko egite horrek honako hau ekarriko du: izangai horri beste deirik ez egitea ezaugarri berak dituen ordezkapena egiteko.

